

# Nu!

www.noa.iaa.com



San Ixidro Eguna eta gero,  
Sagardo Eguna




Angel Irastorza

77 urte eta sasoi betean



ALKARTASUNA kooperatiba

Herriko sagardo guzti  
-guztiak salgai



Aginaga  
Aialde berri  
Araeta  
Arratzain  
Gorostidi  
Iruin  
Saizar  
Urdaira

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14  
E-mail: [alkartasuna@fcae.org](mailto:alkartasuna@fcae.org)

**Karobi**  
Nekazal Turismoa

Fax/Tel: 943360635 Mugikorra: 605704813  
Zubieta (Usurbil)



6 Logela bikoitzak  
hainugelarekin  
Telebista  
Berogailu zentrala

Ohe supletorioak alokatzeko aukera  
Sukaldea erabil daiteke



## LASARTE - USURBIL INSTITUTUA

HEZIKETA PUBLIKOA, KALITATEZKOA ETA AURREAKOIA

[www.instilasarte.net](http://www.instilasarte.net)

### LOGSE BATXILERGOAK (A eta D ereduak) (16-18 urte)

- Zientziak eta teknologia
- Giza eta gizarte zientziak

Aurrematricula:  
Matiazak: 3tik 7ra

### HORNIKETA BERRI ETA GAURKOTUA

- Fisikako eta Kimikako laborategia
- Natur zientziako laborategiak
- Teknologiko bi gela
- Informatikako gelak
- e-gela mugikorra - Gimnasioa

### BATXILERGOAK:

Buenos Aires aldapa, 1  
Telf: 943 372277 - 372852  
Faxa: 943 37 16 78  
[lasarte-bhi@instilasarte.net](mailto:lasarte-bhi@instilasarte.net)

### ZIKLOAK:

Urnieto bidea z/g  
Telf: 943 37 06 11  
Faxa: 943 36 33 96  
[zikloak@instilasarte.net](mailto:zikloak@instilasarte.net)



**HEZIKETA-ZIKLOAK** Aurrematricula:  
Ekainak 1etik 9ra

### ADMINISTRAZIOA

- Administrazio-kudeaketa (Erdi mailakoa)
- Administrazioa eta Finantzak (Goi mailakoa)

### MERKATARITZA

- Merkataritza (Erdi mailakoa)

### INFORMATIKA

Informatika sistema administrazioa  
(Goi mailakoa)

### ETENGABEKO FORMAKUNTZA

- Heziketa zikloak, eskaintza partzialak
- Inbentuzeko kursoak



MATRIKULA EPEA: UZTAIĀĀK 1etik 7ra

### ZERBITZUAK:

- Zarautzik eta Donostiatik autobusak
- Orientabiko zerbitzua
- Liburutegia internet
- Herriko er-erakundeak
- Intere kulturak
- Iraktiak Europako Elkarte enpresetan

# Txirrikitutik

80. hamarkadako argazki honek Kaleberri eta Kalezarko panoramika ederra eskaintzen digu. Gaur egungo itxurarekin zer ikusirik ez du. Argazkian ikusten duguna eta gaur egun inguru guzti hau nola dagoen ikusita, asmatuko al zenukete zeintzuk diren desberdintasunak?

Argazkian Galtzaragaña eta Artzabal baserri aurreko zelaia urbanizatu aurretik ikus ditzakegu. Egun leku honetan aparkalekuak, anbulatorioa, eta etxe mordoak dugu. Udarregi ikastola ere falta da argazkian. Hain justu, bertatik aterata baitago argazki hau, eraiki aurretik noski. Kalezarrek ere aldaketa nabarmena izan du. Bertan ikusten ditugun etxez gain gehiago egin dira eta hainbat eraberritu. Azkenik, Zubietamendian ere, gutxiago izan arren, hainbat aldaketa nabarmentzen dira.

Garai bateko berdeguneak gutxitzen ari dira. Baserri zaharrez osaturiko herria, eraikin modernoz betetzen ari



zaigu. Garbi dago beste garai batzuk direla, baina honek amaierarik izango ote du? Eta orain hitzetik hortzera dabilen jasangarritasuna ...

Zalao Arnaiz Iburguren

**OHARRA:** Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan gaude. 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaua.com e-postan aurkituko gaituzu.

## N u !

**Argitaratzailea :** *Noaua!* Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

erredakzioa@noaua.com

publizitatea@noaua.com

Web orria: www.noaua.com

**Koordinatzailea:** Imanol Ubeda

**Publizitatea:** Maialen Saez

**Kolaboratzaileak:** Lontxo Zubiria, Oskar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainar Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

**Bazkidetza:** Aitziber Aranberri

**Erredakzio Kontseilua:** Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa.

**Informatika:** Topaguneko informatika zerbitzua.

**Banaketa:** Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

**Elektrikaria:** Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:**  
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

## Aurkibidea

ZUTABEAN, AITOR LANDALUZE \_\_\_\_\_ 4. URR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN \_\_\_\_\_ 6. URR.

ATALLUKO AUZIA ARGITUKO OTE DA? \_\_\_\_\_ 10. URR.

SAN IXIDRO EGUNA \_\_\_\_\_ 12. URR.

Nekazarien egun handia, aurren, larunbatean egokitu da. Ospakizun honen aitzakiarekin, Angel Irastorza elkarrizketatu dugu.



DANBORRADAKO LEHEN ENTSAIOAK \_\_\_\_\_ 14. URR.

KORTA ANAI TXIRRINDULARIAK \_\_\_\_\_ 17. URR.

HH 5 URTEKO IKASLEAK NOAUA! TXIKIN \_\_\_\_\_ 18. URR.

EKITALDI GARRANTZITSUENAK \_\_\_\_\_ 22. URR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

AZALA

Sagardo Eguna eta San Ixidro Eguna bildu ditugu azalean

## Zutabea !



AITOR LANDALUZE

## Sagar arra

**B**erriz ere hemen da, egun batez zeruan, eguzkiaren lekua sagarrak hartuko du eta gurekin geldituko da Oriobentan atzean gorde arte. Gustukoa du sagarrak egun hori, nartzisista dela pentsatuko duzue ba tira, nik ez nuke esango; hala ere, zeinek jakin zer egingo genukeen sagarrarekin bezala jaiegun bat ospatuko balute gure zukuaz...

Urtero maiatzako igande horretan, eguneroko nagiak sagarrondoan utzi eta goizean goiz jaikitzen da Aiako harrien atzetik, berehala plaza gainera etortzen da, azken orduko lanak, gehienak ote?, ikustea gustokoa du eta; orduan bai daude mutilak goapo-goapo alkandora txuriz..., poxpolinak..., azpikogonak...

Urtero etortzen diren sagardotegiak erreparatzen ditu, Astigarragako lehengusuak, Hernanikoak eta abar etortzen diren apuntatzen du, etortzen ez direnei ze errieta klase egin pentsatzeko denbora ere hartzen du.

Pixkanaka plaza jendez betetzen hasi da, musika ere entzuten du sagarrak hor goitik, "Bitxia! Aurten ere trikiti!" pentsatu du; beste sagarren aurrean ukatzen duen arren gogokoa du eta bestela begira ezazue, eta txortena nola astintzen duen ikusiko duzue.

Elizaren paretan sagardoaren prozesua egiten hasi dira, zirra-berezi batek zeharkatzen du orduan eta barruko hazik dantzatan sentitu arren, lan hori ikustea ere atsegin du, "eskerrak budista naizela" esan dio barrutik atera zaion arratxoari, "bestela ezingo nuke hau ikusi".

Arra ere hortxe begira geratu da, eta ezagutzen ez duenaren ohiko galderak egiten hasi zaio sagarrari:

Eta hor behean dagoen hori zer da? Sagardo Eguna? Holakorik ba al da? Eta nolatan ez didate abixatu? Eh! Hor sagardo pila dago! Eta edateko zer egin behar da? Hi eta basoa? Norberak erosi behar duela? Eta edan nazkatu arte? Eta musutruk? Jana ere? Ze ba ez? Goiz osoan? Hori guztia agortu arte? Kanpotik ere etortzen dira, eh? Eta musika? Eta martxa hau? Eta deskontrola... Sagarra, bitartean harrotuta badakizue, bere zukuari eskainitako eguna..., gainera ar parasito baten aurrean badauka bai harrotzea, "hire zukuarengatik ez ditek ba festa egun bat egingo" esaldia arrari botatzeko aukeraren zain da, bestela ez luke horrelako galdetegi astunik jasango. Sagarrak entzulea duela aprobetxatuz, erantzunak ahalik eta gehien luzatu eta loratzen saiatzen ari den arren, arrak dagoeneko ikusi ditu; bertsolariak! Oso zalea da batez ere bertso mikatzak direnean, baina hauen oinetan erakargarriagoa deritzon zeozer, "Paradisua!" esan du ikusi duenean: "ehun eta gehiago sagardo botatzailleek sortzen duten putzua!". Kontutan izan, berarentzat itsasoa da, eta gehiago pentsatu gabe buruz bera amildu da plazaren erdian sortu den sagardo zelai erdira zuzen zuzenean txooooooooo-otx ozenki eta o bokala ikaragarri luzatuz.

Sagarrak nahi baino lehenago moztu behar izan du azalpena hala ere bere azken lezioa irakatsi nahi eta hauxe esan dio ordu-rako jaramonik egiten ez zion arrari:

"Aspaldian, Lezoko Lope de Isasti delako batek esan omen zuen: *...y la bebida de la sidra, que se hace en aquella tierra, hace la gente animosa, magnanima, respecto que las manzanas dulces quitan la melancolia y dan una fortaleza y brio particular...*"

Hala bedi!

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

**IKA MIKA** ATALERAKO IDATZIAK ONARTU BERRI DUGUN ARAUDIA BETE BEHARKO DU.

HALA EZ BADA, **NOAUA!**k IDATZI HORI EZ ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

**NOAUA!**k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Hurrengo alea:** maiatzak 28. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** maiatzak 21.

**e-posta bidez:** [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

## ASKO DUGU ESATEKO

**NOAUA!** hamaboskaria, Euskal Txokoak, tren eta autobusen ordutegia, [noaua.com](http://noaua.com), kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, Inauteriak, **NOAUA!** Txiki, fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Zure babesa funtsezkoa da kultur elkarte honen sustenguan.

## Bazkide egin zaitetz!

36 euro urte osorako

Izena: \_\_\_\_\_

1.Abizena: \_\_\_\_\_

2.Abizena: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Herria: \_\_\_\_\_

Telefona: \_\_\_\_\_

E-posta: \_\_\_\_\_

Kontu Korrontea:

Orrialdea bete eta **NOAUA!**ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321



# Protestan baina alai

**L**eloa argia zen, horrelakoetan oihukatu ohi direnen parekoa: “Errauste plantarik ez, ez hemen ez inon”. Gaia serioa bada ere, maiatzaren 8an manifestazioan bildu zirenek jai-giroan osatu zuten Usurbil eta Lasarte-Oria arteko bidea. Horretan, artistak, zubieta-rrak. “Egun da Santimamiñe” doinuaren koplak egokitu eta kantu batean iritsi ziren Lasarte-Oriaraino: “Protestara gatoz alail ez errausts eta ez usain! ez Zubietan eta ez inon! errausterik ez dugu nahi”.

Errauste planten aurkako bi manifestazio egin ziren maiatzaren 8an. Bat, Irunen; bestea, Lasarte-Orian. Azken honetan, ozen entzun ziren usurbildar eta zubietarren oihuak. Pilotaleku atzetik hasi zen ibilaldia Lasarte-Oriako Okendon amaitu zen.

## ATXIKIMENDU UGARI

Errauste planten aurkako manifestazioek hainbat gizarte eragile eta alderdiren sostengua izan zuten: ELA, LAB, EHNE, ELB-USO, CCOO, Lasarte-Oria Bizirik, UHL, Batasuna, Aralar eta IU-EB, besteak beste.

Hiri hondakin solidoei irteera eman asmoz, Foru Aldundiak bi errausketa planta eraiki nahi ditu. Lehena badu kokalekua, Txingudiko Jaizubia ingurunean. Bigarren errauste planta hori non eraikiko den ekainean argituko omen du Foru Aldundiak. Antza denez, Zubieta “hautagaien” artean da.



ZUBIETAKO GAZTETXOEK ERAMAN ZUTEN PANKARTAN “ZUBIETAK, USURBILEK, LASARTEK, URNIETAK ERRAUSKETARI EZ” ESALDIA IRAKUR ZITEKEEN.

## Osasun arloko adituak, kontraesanean

**E**rrauste plantaren aurkako medikuen batzordeak duela gutxi aditzera eman zuenez, gisa horretako plantek, egungoek nahiz aintzinakoek, hilkortasuna areagotzen omen dute. Planten inguruan bizi direnen tumore kopurua nabarmen gehitzen dela azaldu zuten. 210 artikuluko zientifikotan oinarrituta, errauste plantak lurra eta ura kutsatzen dutela adierazi zuten. Bestalde, hainbat gaitz sortu daitezkeela ere esan zuten, batez ere, haurretan.

Osakidetzak, ordea, azkar asko erantzun zuen eta zalantzan jarri zituen medikuen batzordeak eginiko adierazpenak. Osakidetzaren esanetan, medikuek esandakoak «ez du oinarri zientifikorik eta alarmista hutsak dira». Ez hori bakarrik, gogor kritikatu zuen errauste planten aurkako plataformen lana: «herritarren desinformazioa sortzen ari dira horrelako datuekin».

Osakidetzaren esanetan, errauste plantak Europako araudi guztiak betetzen ditu.


**GLG**  
garraioak

ZABOR BILKET

TELF: 943 37 01 46

**TXU**

**UT**



**r t**

t mus k ts n

S n Est n k l , 1  
T I 3 3



IMANOL  
GOENAGA

Txokoalde

## Kontzertu ederrak

**K**aixo usurbildar guzti-guztiori. Hemen nator Korangoan ere gure auzo inguruko kontuez hitz egitera. Maiatzean, eta bide batez, udaberrian erabat murgildurik gauden honetan, hainbat kontu ditugu mahai gainean. Lehenik eta behin, maiatzaren lehen igandean ospatu zen Andatza Eguna aipatu behar, urtero bezala jende anitz gerturatu zen bertara, eguraldiak ere lagundu zuen, eta egun pasa ederra egin ahal izan zuten mendizale guztiek.

Andatza Eguna errespetatu zuen eguraldiak, bai, baina hura soilik, ez baitugu oraindik maiatzeko ohiko tenperatura goxorik ez eguraldi ederrik izan. Eta hala ere, hilabete hau aurrera doa, eta horrekin, uda gerturatzen ari da, horrek animatuta edo Akerra Gaztetxean kontzertu ederrak antolatu ditugularik. Alde batetik, Langileen Egunean, La Navaja de Occam eta El Ultimo Hombre Elente taldeek jo zuten, donostiarrak bi taldeak, eta giro polita sortu zuten pop-rock erako musikarekin. Eta bestetik, maiatzaren 14an, Folclore eta Susmo taldeak datozkigu beraien kantuak eskaintzera. Beraz, beste behin ere, guztioi gonbitea luzatzen dizuegu, ostiral gau



eder bat igaro eta Usurbilgo Susmo talde gazteaz eta Zarautzeko Folckore taldeaz gozatzen.

Hauen musikaren doinuak behintzat, Zumeta aurreko zuloa tapatzeko dauden txapek ateratzen duten soinua baino hobeak izango dira. Beno, hurren arte eta ea ordurako zuloa tapatzen duten.

## Zabor ontzi modernoak



ANA  
URDANGARIN

Kaleberri

**A**spaldi honetan ez dut txoko hau honetarako erabili, eta oraingoan komentatu nahi nuen zabor ontziei buruzko istorioa. Bizkarreko malda horretan orain arte zabor ontzia (honela deituz baldin badago behintzat) oso egoera txarrean zegoen. Gauetan txakur eta katuen gozamenereko tokia deitu beharko litzateke. Lau adreilu puskaren artean zegoen txokoa, denontzat ezaguna, hortik pasatzen baikara gehienok herritik ateratzeko.

Sekulako kiratxa egoten zen bertan zaborra agerian baitzegoen, eskerrak lurreko ontzi horietako bat jarri duten Etxe Txuri etxearen atzekaldean orain toki askotan jartzen ari diren lurrazpiko zabor ontzi tankerakoa.

Gainera, fisikoki ere, beste itxura bat ematen du. Herriko sarrera-irteerak itxura dotorea eduki behar dute jende gehiena hortik zehar ibiltzen baita eta garrantzi handia dutenez, zaindu egin behar dira.

Eskerrak herrian geroz eta leku gutxiago gera-



tzen diren zaborrak botatzeko lekuak estalki gabeak direnak, nahiz eta oraindik ere geratu. Ea pixkanaka-pixkanaka guztiak desagertzen diren.

Hala ere, jartzeak bakarrik ez dauka garrantzia jendeak ere bere ohiturak aldatu beharko ditu eta ez ditu zaborrak lehengo lekutan bota beharko berriak baitaude jada.

Hurrengo bat arte, lagunak. Aio.

## Pare bat eskakizun

**K**aixo NOAUA!ko irakurle guztioi. Oraingoan ere nire txanda iritsi da eta lehenik eta behin pare bat lagunek eskatu didaten eskakizun bat beteko dut: Kalezarreko ermitatik aurrerako bidean, Saizarrerako bidean, alegia, oinezkoentzat gauzez ez dago nahikoa argi eta Saizar ondoko etxeetan eta goragoetean bizi diren gazteek gauzez etxera oinez joan behar izaten dutenean iluntasunean joan behar izaten dute nahikoa farolik ez baitago. Beraz, auzoko gazteen izenean eskatzen dut: Kalezarretik Saizarrerako bidean eta gorago bidean ere, farola gehiago jartzea.

Honetaz aparte, beste komentario labur bat ere egin nahi nuke. Errepide nagusitik Kalezarreko plazara doazen eskilarak oso zikinak egoten dira: hostoez, arrez, hautsez,

etab... Eta zikinkeria honen ondorioz eltxo pila bat egoten da. Beraz, eskilara hauek txukuntzea posible bada, denon artean zainduz eta garbitzaileek maizago garbituz, beste itxura bat izango lukete eta askoz ere atsegina izango litzateke eskilara hauek erabiltzea, batez ere behetik gora igotzerako orduan.

Bestalde, martxoaren 21ean udaberrian sartu ginen eta eguraldi ona egitea kostatu zaion arren, azkenaldian eguzki pixka bat atera da eta nabari da udatik gero eta gertuago gaudela. Gainera, udaberrian, edota hobe esanda maiatzean, usurbildarrentzat badaude ahaztezinak diren bi festa: Andatza Eguna eta Sagardo Eguna. Ondo-ondo pasa Sagardo Egunean eta hurrengorarte.

Kalezar



**ALOÑA  
PULIDO**

## Auzo giro hura

**B**ilbo aldetik doakizue kronika hau. Liburu artean nenbilela jaso nuen NOAUA!tik deia, eta etxetik urrun egon arren, Atxegaldeko milaka irudi etorri zitzaizkidan gogora.

Adin guztietako haurrak biltzen ginen egunero jolasteko, Atxegaldetik irten ere egin gabe igarotzen genituen uda osoak, txabolatxoak ere egin izan ditugu bertan! Hala ere, beste auzoek duten zerbait galdu zen hemen, auzoko festak, hain zuzen.

Auzo izaera galdua du jada. Komertzio falta handia dago eta, egia esan, dagoenarekin moldatzeko dugun ohituragatik ez da erraza bixitasuna lortzea gure kaleetan. Gaur egun lo egiteko tokia da, eta noizbait beste zerbait izan bazen orain galdua dago, zalantzarik gabe.

Honekin ez dut esan nahi hau guztia aldatzeko aukerarik ez dugunik. Aginagako eredia jarraitu behar genuke, adibidez. Aginagarrek



herritar kontzientzia dute, beren artean konplizitate berezia dago eta jaiak, beraientzat behinik behin, beste inongoak baino hobekak dira. Komunitate indar hori da falta dena.

Garai bateko giro hura berreskuratzea ez legoke gaizki, neurri batean bada ere. Ez dugu herri baten modura jokatu beharrik, baina festek batasun bat ematen zioten auzoari, izaera bat. Egun gutxi batzuetan kalean bizitza sumatzeak umeak poztuko lituzke, eta hain umeak ez direnak ere bai, ziur aski.

Atxegalde



**NEREA  
KORTA**





PAKO  
AGUDO

Santutenea

## Gazteentzako tailerrak

Andatzara bidean mendizale asko pasa ziren gure auzotik barrena. Iaz bezala, usurbildarrekin batera zizurkildarrak ere animatu ziren. Egun polita egin zuen eta bertan sortu zen giroa ere ederra.

Hamaiketakoarekin indarrak hartu ostean, ikustekoak izan ziren Andatza gainan egin zen jokoak. Irudian, mendizale gazteak sokatiran.

Ez dakit herri-kirolak ere izango diren, tailerrak behintzat iragarri dira Plis, Plas, Txalo ta Jolas egitarauan.

Udaberriak azken urteotan Plis, Plas, Txalo ta Jolas zikloa ekarri izan digu. Aurten, Txan Magoa izango da lehen gonbidatua. Aginagan izango da maiatzaren 15ean, arratsaldeko 17:30ean hasiko den saioan.

Baina bigarren ekitaldia gure auzoan izango da: maiatzaren 29an, larunbata, 17:30ean hasiko dira gaztetxoentzako tailerrak.



## Maiatza



ALAZNE  
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Nik uste dut gustuko izaten dugula maiatza hilabetea. Astebukaera bakoitzean izaten da zerbait. Aurten bost astebukaera ditugu baina lau astebukaera direnean, lehengoan, Andatza Eguna izaten dugu; bigarrenean, Herri Urrats; hirugarrenean, Sagardo Eguna; eta laugarrenean, jaunartzeak.

Benetan hilabete betea maiatza. Gainera, udaberri giroa ere gehiago nabarmentzen da eta denak alaiago egoten gara. Baina zer da aurten-go? Denen ahotan entzuten da "a ze maiatzal!" eta egia da.

Maiatzaren 2an Andatza Eguna izan genuen. Ez dizuet gezurrik esango, bezperan afari bat izan nuen eta igande goizean ez nintzen Andatzara igotzeko aldarrean aurkitu, baina jendeari entzun diodanez, bat baino gehiago izan ziren Andatzara igo zirenak. Lehenago eguraldiaz aritu naiz eta egun honetan, egia esan, lagundu egin zien, bai, Andatzara igo ziren guztiei.

Orain Sagardo Egunari begira jarriak gaude. Nik uste, egun garrantzitsua izaten dela hau usur-



bildarrentzat, eta denok ere, irrikitan egoten garelako egun honi begira.

Eguraldiari eskaera bat egitea besterik ez zait gelditzen. Has dadila maiatzeko egun hauei udaberri giro ederraren kutsua emanez, bai Sagardo Egunari begira, baita baratzetan landareak landatu eta haziak eriteko zain gauden baserritar guztiei begira.

Ea horrela izaten den!



## Azkarxeago beti

**K**aixo denoi berriz ere! Gaurko honetan errepideen inguruan hitz batzuk egiteko asmotan naiz. Egunero ibiltzen gara errepideetan eta badirudi bertan ibiltzeko arauak gero eta gutxiago errespetatzen ditugula. Esate baterako; abiadura mugatzen duten seinaleei ez diegu kasu gehiegirik egiten eta baimendutakoa baino azkarxeago joaten gara sarritan, hori bai! Ertzainen autoren bat ikusten badugu errepide bazterrean, freuari azkar zapaltzen diogu badaezpada ere. Horrelako gauzak ia denok egiten ditugu, denok ez esatearren, zintzo-zintzo dabilenen bat ere izango da tartean eta.

Gure auzoari dagokionean ere, hortxe daukagu bertatik pasatzen den nazional 634 errepidea. Aginaga inguruan eta errepide honetan baimenduriko abiadura 50km/ordukoa dugu baina...



Auzoko 3 kilometro ingurutan oinezkoentzako pasabideak ere baditugu, zebra-bideak deiturikoak, baina jar zaitezte noizbait autoren bat gu bazterrean pasatzeko zain gaudela eta geldituko denaren esperantzan, eta pixka batean itxaron beharko duzu!

Aginaga



**AINHOA  
SALSAMENDI**

## Urbanizazio-obren gorabeherak

**K**ostata, eta bazterrek ederki nahastuta, baina badirudi urbanizazio-lanak aurreratu daudela. Ia bi urte eta erdi pasa dira hasi zirenetik, eta dagoeneko obrak bukatzeko amarratzen gaude guztiok.

Zoritzarrez, ordea, lanen orain arteko mar txan hainbat irregulartasun eta hutsegite egin dira. Hori dela eta, Herri-Batzarrak obrei buruzko bi txosten enkargatu ditu: bata juridikoa, Endara abokatu-taldeak egin duena, eta bestea urbanistikoa, Luis Renedo arkitektoak egindakoa. Bi txosten horietan zehaztasunez azaltzen dira gorabehera administratiboak eta urbanistikoak. Ondorio nagusi bat atera daiteke: Donostiako Udalak ez du behar bezala gestionatu eta zuzendu obra.

Gauzak horrela, Herri-Batzarrak ez du onartuko obrak bukatutzat ematea harik eta dauden akatsak konpondu, eta kontrolak behar bezala pasa arte.

Horrekin batera, kontuan hartzekoa da obrak izugarri garestitu direla. Hasierako adjudikaziotik % 40 inguru puztu da aurrekontua. Azkenean 580 milioi pezeta baino gehiago kostako omen da, nahiz eta oraindik ez den zehaztu behin betiko kostu erreala. Garestitze horren kausak asko dira, baina obra hori ordaindu behar duten sustatzaileek (promotoreek) uste dute igoera horren zama ez dagokiela beraiei bakarrik. Azken batean, ardura dutenen artean banatu beharko litzateke igoera neurrigabeko hori.

Kontu hauek direla eta, adostasun zabala dago zubietarren artean. Denoi interesatzen zaigu obrak txukun eta ondo bukatzea. Sustatzaileen artean ere hizketarako eta elkarlan bateraturako gogoia piztu da. Sintoma ona da hori, bai urbanizazio-obren gorabehereri aurre egiteko, bai Zubietan herri-giroa sendotzeko.

Zubietan



**XABIER  
ARREGI**

# Atalluko lur-erosleei ultimatuma eman die Udalak

**A**talluko korapiloa, askatzeaz". Honela zioen martxoaren 18ko NOAUA!k. Baina askatzeaz zena, askatu gabe jarraitzen du. Edo nork daki, akaso lerrok irakurtzerakoan akabo auzia. Kontua da denbora aurrera doala eta enpresa adjudikatariak falta dena ordaindu gabe jarraitzen dutela, lur-jabeek kobratu gabe eta proiektua gelditi. Udalak zirt edo zart egin nahi du eta enpresariei ultimatuma eman die. Enpresari erosleek astebeteko epean ordaintzen ez badute, Udalak hitzarmena bertan behera utzi eta kontzesio berriak egiteko prozedura zabalduko du.

Azken hilabeteotan, Udala enpresa adjudikatarien abokatuarekin aritu da negoziatzen. Bi puntutan oinarritu dira negoziatzeak:

1. Lurren justiprezioak ez ordaintzeak eragin dituen interesak nork ordaindu behar dituen zehaztea.

2. Ugaldea eta Atalluko urbanizazioak batuko dituen loturaren gaineko kostua nork asumituko duen argitzea.

Lurrak eskuratu ahal izateko enpreserosleei ezarri zitzaizen justiprezioa ordaintzeko epea pasa zen. Geroztik, atzerapenak eragindako interesak pilatzen joan zaizkie enpresari-erosle horiei.

Azken asteotako negoziaketetan, enpresa adjudikatariak justiprezioan ezarritako prezioa ordaintzeko prest zeuden, baina interesak erdibana ordaintzea eskatzen zioten Udalari.

Azkenean, enpresarien abokatuarekin adostasun batera iritsi zen Udala: enpresariak justiprezioa eta interesak ordainduko

lituzkete; Udalak, aldiz, Ugaldea-Atalluko loturaren gaineko kostua asumituko luke. Udalak uste du Eusko Trenek bere gain hartu behar duela gastu hori eta hori lortzearen, tramitazioei hasiera emateko prest dago.

Adostasuna gertu zegoela zirudienean, enpresariak euren abokatuak adostutakoa ez zutela onartzen erantzun zioten Udalari.

Luis Mari Ormaetxea alkateak adierazi digunez, "gai hau ezin da gehiago luzatu. Lur jabeek berehala ordaindu behar zaie. Enpresa adjudikatariak astebeteko epea eman diegu. Dirua ingresatzen badute lurra beraiena izango da. Ordaintzen ez badute, hitzarmena bertan behera utzi eta kontzesio berriak eskaintzeko prozedura zabalduko dugu".

Honek zer esan nahi du? Operazioa zerotik hasiko lituzatekeela. Oinarri berriak lehenbailehen prest egongo liriteke eta Atalluko partzelak enpresa berriei esleituko litzaieke.

Udalak, prozesua azkartzearen, oinarri berriak denbora gutxian onartu eta partzelak berehala esleituko lituzke. Lur jabeek ere, epe laburrean kobratuko lukete.

Egun hauetan zer gertatzen den ikusi behar.

## BOST PARTZELA

Atalluko S-5 sektorean bost partzela daude. Partzela bakoitza enpresa ezberdinei esleitu zitzaion. Baina zera gerta daiteke, enpresa horietako batek orain atzera egin nahi izatea. Kasu horretan, partzela hori beste enpresa berri bati esleituko litzaioke.

Udala, kasu horretan, tramitazioak ahalik eta azkarren egiteko prest azaldu da.



ATALLUKO AUZIA ARGITZEKO ZIRT EDO ZART EGITEKO PREST AZALDU DA UDALA.

## KULTUR ETXEA, BI HILABETEZ GELDI

Martxo amaieratik gelditu daude Kultur Etxeko lanak. Obra hasi baino lehen, Udalak hitzarmen bat sinatu zuen enpresa eraikitzailearekin, kasu honetan, Amenabar enpresarekin. Baina antza denez, ordutik hona eraikitze-gastuak gora egin dute eta obrarekin jarraitzeko diru gehiago eskatzen zuten enpresa honek.

Udala eta enpresaren arteko aldeak handiak ziren duela bi hilabete. Baina antza denez, auzia konponbidetan da. Atzerapenak atzerapen, azaro erdialderako zabaldu nahi dira Kultur Etxe berriko ateak.

**Lou**  
**LIZARRALDE** ilcapaindegi mistroa

Permanente inteligentea, rizoen kiribilketa kontrolatuarekin.

Solarium-a, estetika, depilazioa, manikura, manikura frantsesa, pedikura, eta makilujia.

Zuhaitzenea, 5b Telf: 943 36 19 71




**Haur jantziak**

**Pauma**

Kale Nagusia, 10 Telf: 943 365 943





# Elkartasunezko Nazioarteko Konferentziaren oihartzuna ozen entzungo da Dema Plazan

**A**mnistiaren Aldeko Mugimenduak Elkartasunezko Nazioarteko Konferentzia antolatu du maiatzaren 20tik 23ra bitarte, Donostiako Miramar jauregian. Musika jaialdia, ordea, Dema Plazan egingo da, maiatzaren 21ean. Egun horretan Banda Bassotti, Berri Txarrak, Ken 7 eta La Kinky Beat taldeen bisita jasoko dugu.

Ekimen honekin, funtsean, euskal presoena izaera politikoa aldarrikatu nahi da. «Euskal Herrian gatazka politiko bat badago, eta gatazka horren ondorioz daude preso politikoak. Beraz, izaera eta eskubide politikoak aitortzea behar-beharrezkoa da», esan zuen Jon Enparantza abokatuak konferentziaren aurkezpen-ageraldian. Gatazkaren konponbidean Euskal Preso Politikoen Kolektiboa eragile izatea aldarrikatuko dute, halaber. Konferentziak bi helburu nagusi izango ditu, beraz: batetik, euskal presoena egoeraren berri ematea eta kontzeptuak argitzea; eta bestetik, nazioarteko gatazka politikoen ondorioz dauden preso politikoen esperientzietatik ikastea eta elkartasun sarea osatzea.

## NAZIOARTEKO

### ORDEZKARITZA ZABALA

Nazioarteko sarea osatzeko 20 herrialde baino gehiagotatik ordezkari izango dela baieztatu dute anto-

latzaileek. Hala nola, Txile, Argentina, Sahara, Kolonbia, Hego Afrika, Puerto Rico, Peru, Palestina, Suitza, Irlanda eta Kurdistandik hainbat ordezkari etorriko dira. Bakoitzak arlo diferentean egingo du ekarpena. Batzuek preso politikoen eskubideen alde egindako lanagatik dira ezagun, beste batzuek konferentzian jorratuko dituzten gaietan interesa dutenak dira. Horiekin batera izango dira presoena elkartasunaren aldeko erakunde-erakunde ordezkariak eta baita preso politikoen ordezkariak ere.

## EGITARAU MAMITSUA

Konferentzia maiatzaren 20tik 23ra egingo da eta nagusiki Donostiako Miramar jauregian gauzatuko da. Baina bestelako ekitaldiak ere aurrikusi dira. Horien artean, Usurbilen egingo den jaialdia. Hilaren 23an, 13:00etan, «Presoak kalera, amnistia osoa» lelopean Donostiako Bulebarretik abiauko den manifestazioarekin amaituko da Elkartasunezko Nazioarteko Konferentzia.

## MAIATZAREN 21 EAN, BANDA BASSOTTI DEMA PLAZAN

Esan bezala, konferentzia honek bere arrastoa utziko du Usurbilen. Maiatzaren 21eko gaua beraiena izango baita. 21:30ean hasiko da musika jaialdia eta festak pilotalekua eta Dema Plaza lotuko ditu. Ken 7, La Kinky Beat, Berri Txarrak eta



DUELA BI URTE SANTIXABELETTAN IZAN ZIREN BANDA BASSOTTI TALDEKOAK.

Banda Bassotti taldeak arituko dira zuzenean. Selektah Sound System-ek ere hartuko du parte eta jan-edateko-rik ez da faltako: oilaskoak, txoznak, bokatak, taloak, jai...

## SAGARDO EGUNEAN, ETXERAT! ENKARTELADA

Ohi bezala, Etxerat! erakundeak Sagardo Egunean egingo den enkarteladan parte hartzeko deialdia egin du. Pilotaleku atzeko parkean bilduko dira, eguerdiko 13:00ean.


  
**ETXESAGASTI**
  
*Dilatzen ditugu:*
  
 -Etxeak
   
 -Baserriak
   
 -Lur Zatiak
   
 Telf: 667 525 830

**JOSETXO IKATZETA**
  

  
 Iturgintza
   
 TELF: 943 36 20 26
   
 687 95 12 25

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)

# Angel Irastorza: "Fabrikatik jubilatu ginen baina baratzean jarraitzen dugu, tirriki-tarraka"

**B**izikleta hartu eta egunero joaten da baratzerara, lan pixka bat egitera. Giroak laguntzen ez duen arren, etxerako zeozer jasoko duen esperantza ez du galtzen. San Ixidro egunaren aitzakiarekin, Atallu inguruan duen lur-eremura hurbildu gara.

San Ixidro egunak oihartzun handiagoa al zuen lehen?

Angel Irastorza. Orain dirua dago. Orduan gutxi, milagro gutxi. Gu ere oilasko biltzen ateratzen ginen herrian. Oilasko batzuk bildu baina *kuidau!*, deskuidoan bazkaria gure patrikatik ordaindu behar. Gero, festa bazan, gu geu ateratzen ginen korrika apustuan, lokatxa biltzen... Orain kanbiatuta dago.

Orain hobeto bizi gara.

A. I. Nahi luke! Orain nahikoa jaten dugu. Orduan, goseak amorratzen.

Nekazariak, sikiera, baratza puska zenuten.

A. I. Horri eskerrak. Gerra garaian, patata, arto edo babarrun hura jan eta aurrera. Ez kaferik, ez ardorik... Ez orain bezala.

Orain hobeto bizi garen arren, ez duzu baratze-lana utzi. Zer landatu ohi duzu.

A. I. Letxuak, patata, tomatea, porrua, artoa, babarruna... Baina giroa txarra da eta ez du laguntzen. Egunero hemen izaten naiz, tirriki tarraka.

Lan egun nahiz jai egun izan.

A. I. Jaican ere buelta bat egiten dut beti. Hemen lapur asko baitabil. Makina ere eraman dute hemendik.



AURTENGO UZTA TXARRA DATORRELA ESAN DIGU ANGELEK.

Zakurren bat jarri beharko duzu.

A. I. Zakurra ere, laster bidaltzen dute. Santuenetik ekarri nuen Tomi hura gaiztoa zen. Ez zen hemen sartuko zenik. Hura ere bidali egin zuten, askatuta. *Zakur* ederrak etortzen dira hona. Iaz, Santio bezperan, patata lapurtzera sartu ziren.

Giroak ez duela laguntzen esan duzu. Aurtengo uzta ez da ona izango.

A. I. Txarra dator. Ustelduta. Giro txarrean, patata gutxi izango da aurten. Etxerako behintzat zeozer jasotzen badugu...

Potxoenean jaio zinela esan didate.

A. I. Santuenean bizi naiz orain, baina

herriak hartua daukan Potxoenea esaten dioten horretan jaio nintzen. Baina horrek ez du izen hori. Arrillaga Enea du izena. Bertan jaioa naiz ni. Gu hara joan baino lehen, atso batzuk bizi omen ziren. Potxo atsoak deitzen omen zitzairen. Baina etxearen izena Arrillaga Enea da, eta markesaren paperetan ere, hala ekarriko du. Orain hutsik dago, herriak hartuta edukiko du.

Makina kontu ikusiko zenituen Arrillaga Eneako leihotatik.

A. I. Demak eta izaten zirenean, ganbarako lehiotik ikusten genituen. Apustuak ere izaten ziren orduan. Afizioa nuen. Garai hartako umea gogorra izaten zen. Nik pilotan izugarritzko afizioa nuen. Bi eskuak onak. Behin Pagolari, Kalezarrekoari, hari jokatu nion *mano-*

Kale Nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia

**L A B E - G O X O**

**L T I L L E**

**ITU GINTZ G SET E GINTZ**

**I N S T L K U N T Z K**

IZTTTX K L F . ( 3 ) 3 2 35-3 33  
E H F M I 21

**MIKEL**

**IZ GI E**

**ERAKI BAITA**

0 11 6 , 7  
R le  
el 11 - 11 111



*mano*. Kristoren jende pila etorri zen. Pilota librearen genuen. Harek bizia hartu eta nik motelagoa. Azkenean berea sakatu nion. Takorik eta ez zen, pilotak txarrak eta eskuak azkar hondatzen zitzaizkidan. Kanpotik denak agintzen nituen eta horrek amorrazioa ematen zidan. Nerbioso jarri nintzen. Azkenean esan nien amorrazita, "aizue, pelotan nik egin behar det eta ez zuek, utzidazue isilik!". Orduan egin nituen tanto batzuk. Nik 17 urte nituen orduan, 77 ditut orain. Duela 60 urteko kontuak dira horiek. Orain bizi gara orain. Lehen baserrian eta gero fabrikara joan behar.

#### Fabrikaren ere ibili al zinen?

A. I. Ibili? 42 urte pasa nituen Luzuriaganean. Ibili esaten duzu... Gaztetan hasi nintzen. Fabrikatik jubilatu ginen baina hementxe jarraitzen dugu, tirriki-tarraka.

## SAN IXIDRO EGUNA MAIATZAK 15, LARUNBATA

10:00.- MEZA.

11:00.- HAMAIKETAKOA.

11:30.- "SAGAR- BILTZEA".

12:00.- "ZURA LANTZEN" (HARPANA, MOTOZERRA...).

11:00-14:00.- TRIKITILARIAK, BERTSOLARIAK, AZIENDA ERAKUSKETA (BEHIAK, ZALDIAK, POTOAK, ARDIAK, AHUNTZAK, ASTOAK, USAKUMEAK...), LORE SALMENTA (URTINEA, ETXETXO ETA ARANBURU), BARATZARAKO LANDARE SALMENTA (PEÑA IBARRATIK), MAKINARIA ERAKUSKETA,



AURTEN EZ DA IDI-PROBARIK IZANGO.

TALOAK, SAGAR DULTZEA, BARAZKIAK, GAZTA...

14:30.- BAZKARIA SAIZARREN.

(25 EURO, NORBERAREN KONTU)

## Belar-bolen zerbitzua, makinista berri baten ardurapean

Orain dela hiru urte, Behemendi Landa Garapenerako Elkarateak belar-bolak egiteko zerbitzua martxan jartzea erabaki zuen. Aurten ere, zerbitzu hau eskainiko da baina beste makinista bat izango da eramango duena, eta zerbitzua ahalik eta osatuena izan dadin, honako baldintza hauek zehaztu dira.

#### BI ERATARA

##### ORDAINTZEKO AUKERA

- Orduko. Rotoenpakadora: 31,88 euro. Enzintadora: 28,7 euro.

- Bolako. Plastikoa, soka eta mantimendua: 4,31 euro.

#### ORDAINKETA NOLA EGIN

Ordainketa makinistari berari egingo zaio eskatutako lanak bukatzerakoan.

#### MAKINISTA IRISTEN DENERAKO, DENA PREST

1.- Makinista iristen denerako belarra mozturik egon behar du, hau da, makina lanean hasteko prest. Makinista baserrira iristen den momentutik aurrera hasiko da kobratzen.

2.- Gutxienez bi ordutako lana egingo da; nahiz eta denbora gutxiago pasa lan gutxiago sortu delako,

bi orduak kobratuko dira. Hau gerta ez dadin, aurretik deitzea gomendatzen da.

Makinistaren eskubideak honako hauek dira:

a.- Makinistak bere traktorea jartzen du lan honetarako.

b.- Arrisku handia duten lanak ez onartzea erabaki dezake.

d.- Lana antolatu eta dena jaso behar izango du.

Aurreko alean esan genuen bezala, makinista Usurbilgo Lartzandieta baserriko Koldo Huegun izango da, eta zerbitzu eskaera egiteko telefonoz deitu behar zaio aldeztu aurretik: 645 735 750 / 666 607 447.

**PATRI**

JATEXEA

Eguneroko menuak  
- Plater konbinatuak  
Ogi-zerbitzuak

Tel: 943 36 27 25  
Kale nagusia, 14



**TXIRIBOGA**  
taberna

pintxoak, bokatak eta  
plater konbinatuak

Tel: 943 36 13 98



## Danborrada prestatzeko bilera Agerialden

**D**anborradaren antolatzaileak lanean hasi dira jada. Laster hasiko dira entsaioak baina hori baino lehen bilera batean bildu nahi dute haurren gurasoekin. Bilera hilaren 14an izango da, arratsaldeko 19:00etan, Agerialdeko patioan.

Bilera, esan bezala, maiatzaren 14an, ostirala, egingo da Agerialdeko patioan. Umeentzako entsaio egunak eta orduak zehaztu behar dira eta antolatzaileek gurasoen iritzia jaso nahi dute. Dena den, lehen proposamen bat badute. Umeentzako entsaio egunak eta orduak: astelehenera, arratsede 18:30ean; edota ostiraletan, arratsaldeko 19:30ean.

### HELDUEN LEHEN ENTSAIOA MAIATZAREN 21EAN

Helduen danborradarako entsaioak, ordea, zehaztuta daude jada. Maiatzaren 21ean, ostirala, egingo da lehena, arratsaldeko 20:30ean Agerialdeko patioan. Izena eman nahi duena entsaiora hurbildu dadila.

### ANTOLATZAILEEN OHARRA

Antolatzaileek aditzera eman dutenez, antolaketa lanetan laguntzeko prest daudenak bilera eta entsaio egunetan etortzea eskertuko lukete. Informazio gehiago eskuratu nahi baduzu, deitu 943 37 19 99 telefono zenbakira.



LEHEN BILERA MAIATZAREN 14AN IZANGO DA, 19:00ETAN, AGERIALDEKO PATIOAN.

## Maiatzaren 14an, Udarregin, "Amaren alabak" kantu ikuskizuna



Zuberoako sei kantari gaztek osatzen dute "Amaren alabak" kantu ikuskizuna. Maiatzaren 14an izango dira gure artean, Udarregin, iluntzeko 20:00etan. Nafartarrak taldeak antolatu du doaneko saio hau.

## Herriko Etxe Euskaldunen eguna antolatu du UEMAK

**H**erriko Etxe Euskaldunen egunarekin, administrazioan euskaraz ari diren instituzioak goratu nahi dira. UEMAK antolatu duen eguna Azkainen ospatuko da, ekainaren 19an. Egitaraua, hauxe:

10:00etan mahai-ingurua Biltokin: "Hiz-kuntza guttituen erabilera tokiko administrazioan". 12:00etan, Ekitaldi Ofiziala plazan: Azkaingo Txalapartariak, Laduche jauna, Azkaingo Auzapeza, Marie-Jeanne Mercapide, Euskal Konfederazioko Lehendakaria, Erramun Bachoc, Euskal Kultur Erakundeko auzapeza eta Jose Maria Kazalis Eiguren UEMAKo Lehendakaria. 12:30ean, Jauziak plazan, Ikasleak dantza taldearen saioa. 13:00etan, herri bazkaria, Martzeneko eskolan. 15:00etan, Kiki eta Koko pailazoak, plazan (euria egingo balu, Bil Tokin), doan. 16:00etan, Txan Magoa, Bil Tokin, doan.

**ERRAZ IN**

**Igeltzer tzo**

**r rra**

K I N s , l  
T l f 3 3 2 7 1 3 5 2 5  
S ntu ■ M 2 2 5 5



**MAHUKA**

G z n t m kum zk n  
m k rr uzt  
h m n urk tuk uzu

Etx st k l , 3  
T l f 3 3 1 1

**I lts r tz**

Mugikorra: 649435475  
649435476  
943 363370- 361439



## Oiardo Kiroldesia txiki geratu zen Lluís Llach kantariaren emanaldian

